



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

136/2020 Foru Agindua, apirilaren 1ekoa, Covid-19aren ondorioz zergapeko jakin batzuentzat hiru hilabeteko autolikidazioak eta aitorpen ez-aldizkako, informatibo eta laburtzaileak aurkeztu eta ordaintzeko epea zabaltzen duena.

Martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu Arauaren bidez (2020ko martxoaren 25eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua), zerga izaerako neurri jakin batzuk indarrean jarri ziren Covid-19aren osasun krisiaren ondorioz.

Foru dekretu-arau horren hitzaurrearen arabera, onartutako neurriak Covid-19aren osasun krisiak eragindako aparteko zirkunstantziei begira hartu dira, egoeraren bilakaeraren arabera ebaluatuko den denbora muga bat jarrita.

Bilakaera horren ondorioz, herritarren mugikortasuna mugatu da ahalik eta gehien, lan jarduera eta jarduera profesionala funtsezkotzat hartutako jarduera edo sektoreetara murriztu arte. Murriztapen hori martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretua dela medio ezarria da, hau da, Covid-19aren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna murrizteko xedearekin, funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarri bat arautzen duena.

Egoera berri hori kontuan hartuta, malgutu egin behar da zerga obligazio jakin batzuk betetzea, baldin eta haiek betetzeko epea denboran bat badator mugikortasun murriztapen horrekin. Murriztapenak bereziki mikroenpresei eta enpresa txikiei eta pertsona fisikoei eragiten die, besteak beste. Izan ere, haientzat bereziki zaila izan daiteke zerga obligazio jakin batzuk betetzea.

Horiek horrela, beharrezkotzat jotzen da 2020ko ekainaren 1era arte luzatzea hiru hilabeteko autolikidazioak eta beste aitorpen aldizkako, informatibo eta laburtzaile batzuk aurkeztu eta ordaintzeko epea.

Neurri hau Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak hartua da, betiere martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu-Arauak, Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituenak, azken xedapenetako lehenaren 3. apartatuan hari emandako araugintzako ahalmenean oinarrituta.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.

1. Martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu Arauak, Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga izaerako neurri jakin batzuk onartzen dituenak, 3. artikularen 4.a) eta 6. apartatueta jasotakoa jasota ere, 2020ko ekainaren 1era arte zabaltzen da autolikidazio eta aitorpen hauek aurkeztu eta, hala badagokio, ordaintzeko epea:

a) Aurkezpen epea 2020ko apirilaren 27an amaitzen zaien 2020ko lehen hiru hilabeteari dagozkion hiru hilabeteko autolikidazioak.

b) Aurkezpen epea 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean amaitzen zaien aitorpen informatiboak eta laburtzaileak.

c) Aurkezpen epea 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean amaitzen zaien sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkorrei dagozkien ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren autolikidazioak.

d) Aurkezpen epea 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean amaitzen zaien autolikidazio eta aitorpen ez-aldizkakoak.

2. Epe zabalpen hori zergapeko hauei bakarrik izango zaie aplikagarri:

a) Pertsona fisikoak.

b) Jarduera ekonomikoak egiten dituzten errenta esleipeneko araubideko entitateak, salbu beren bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak pertsona juridikoak badira.

c) Jabetza horizontaleko araubidean dauden jabeen komunitateak.

d) Testamentua emateko ahalorde baten zain dauden jarauntsiak.

e) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2024 Foru Arauak 13. artikularen 1. eta 2. apartatueta jasotako mikroenpresei eta enpresa txikiei,

f) urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 13.2 artikuluan aipatutako partzialki salbuetsitako entitateak.

g) urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 14. artikuluan aipatutako ondare sozietateak.

h) apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, jasotako araubide bereziari jarraituz zergapetuta dauden irabazi asmorik gabeko entitateak.

3. Aurreko 2. apartatuaren e) letratik h) letrara bitartean jasotakoaren ondorioetarako, kontuan hartuko da azken zergaldiko sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa.

Sorrera berriko entitateak izateagatik azken ekitaldian autolikidaziorik aurkeztu ez bada, aurreko 1. apartatuan jarritako epeak 2020ko ekainaren 1era arte zabalduko dira, nolanahi ere.

4. Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu-Arauaren 3. artikuluko 7. apartatuan ezarritakoa ezarrita ere, 2020ko ekainaren 1a arte zabaltzen da jokoaren gaineko zergen alorrean makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoari dagozkion autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko epea.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko apirilaren 1a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(1746)